

BASAGAINGO HERRIXKAKO (ANOETA, GIPUZKOA)

INDUSKETA ARKEOLOGIKOAREN TXOSTENA

XXVI. EKINALDIA

2020KO IRAILA



Historiaurreko Arkeologia Saila

Aranzadi Zientzia Elkartea

Donostia

Zuzendaritza: Xabier Peñalver Iribarren eta Eloisa Uribarri Agirrebengoa



SOCIEDAD DE CIENCIAS
SCIENCE SOCIETY
SOCIÉTÉ DE SCIENCES

SARRERA

Basagaingo herrixkan 2020an egindako esku-hartzea, espero genuen moduan, Covid 19-ak desitxuratu zuen, eta horrela, 2019ko urte amaieran Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailean aurkeztutako proiektuan aipatzen genituen ildo batzuei eragin zien.

Iraileko hiru astetan zehar egindako lanetan beharrezko prekauzio-neurri guztiak hartu genituen, birusaren kutsadurarik ez izateko.

Neurri horien guztien artean nabarmenena, eta lanen zati garrantzitsu bati eragin ziona, induskatzaileen kopurua murriztea izan zen.

Urritasun hori nolabait orekatzeko, aurreko ekinaldietan egiten genituen ekintza batzuk aldatu genituen; besteak beste, esku hartutako eremu osotik estalkia kendu eta buru-belarri garbitzea, argazki orokorrak egin ahal izateko. Oraingoan, esku hartu beharreko eremuetako estalkia soilik kendu genuen, eta horrek eragina izan zuen ekinaldiko argazki-lanetan.

Hala ere, programatutako eremuetako esku-hartzea behar bezala gauzatu ahal izan genuen, aste horietako eguraldi egonkorrak ere asko lagundu zuelarik.

Zorionez, lan-taldeko kideen artean ez zen birusaren inolako kutsatzerik izan.

Bestalde, Basagaingo herrixkan orain arte egin diren lanei buruz Aranzadi Zientzia Elkarteak aurten (azaroan) argitaratuko duen dibulgaziozko liburuak, eta laster (lana emanda dago), Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak argitaratzeko asmoa duen gai bereko argitalpen sakonagoak erraz konpentsatuko dituzte ekinaldi honetako zailtasunak.



Indusketa-eremuaren 2019ko airetiko argazki orokorra; azalera osoa, babesteko jartzen dugun estalkirik gabe dago.

HERRIXKAREN DESKRIBAPENA

Basagaingo herrixka harresitua izen bereko mendian dago, itsas mailatik 295 m-ko altuerara, eta Oria ibaitik 227 m-ko altuerara eta 650 m-ko distantziara, Iruraren parean, Anoeta (Gipuzkoa) udalerrian.

Muino luzexka batean kokatua, lurrez estalitako harresi batek oso-osorik inguratzen du, nahiz eta horren ibilbidearen gehiengoan ezponda baino ez den ikusten; inguruaren ikuspegi zabala dauka, eta horrek Oria ibaiaren ibilguaren zati handi batekiko kontrol handia ematen dio. Esparruko zenbait aldetatik, ibai beraren gainean kokatutako Buruntzako herrixka (Andoain) ikusten da.

Guztira 2,81 hektareako azalera dauka, eta gailurrean ipar-hego norabidean 100 m luze eta ekialde-mendebalde norabidean 25 m zabaldun (2500 m^2 , beraz) eremu bat dauka. Dena den, herrixkaren terrazadun eremuak garrantzi handia du, arkeologia-lanek erakusten duten moduan.

Eremu hori esparruaren ekialdeko aldetik doa eta hegoaldean mendebaldera biratzen da; ibilbide osoa harresiaren ondoan egiten du eta kota oso uniforme mantentzen du. Terraza horrek 30/35 m-ko zabalera hartzen du toki batzuetan, esku hartutako eta egituren aztarnak eta material ugari aurkitutako eremuan, hain zuzen ere. Esparru honetako eremu lauek 11250 m^2 -ko azalera hartzen dutela kalkulatu da, hau da, harresitutako azalera osoaren % 40. Herrixkaren gehieneko aldapa % 32,42koa da, eta gutxienekoa berriz % 22koa.

Esparruaren goiko aldean, uneraren batean harria erauzi zela diruditen bi leku daude; lehenak 40 m^2 inguruko azalera dauka, eta bigarrenak berriz, 80 m^2 ingurukoa, haitzaren ebaketa bertikalaren alderdian 2,20 m-ko gehieneko sakonera duelarik.

Material arkeologikoei eta C^{14} bidezko datazioei esker dakigu, herrixkaren induskatutako eremuan, gurearen aurreko aroaren azken mendeen eta gurearen lehenengo artean bizi izan zirela. Horrela, eskuz eta tornuz egindako zeramika-tipologia anitzaz eta jarduera metalurgiko garrantzitsuaren aztarnez gain (aleak eta ekoizpen-jardueraren aztarnak),

beste ale esanguratsu batzuk nabarmentzen dira; besteak beste, beira-orezko besoko zati bat (K.a.-ko 220 eta 80. urteen artean datatua, eta ziurrenik zehazkiago K.a.-ko 175 eta 125 urteen artean), *Bascunes* txanpon-etxeko zilarrezko denarioa eta oin alderantzikatuko eta Iturissa motako fibulak.

Herrixka honetan orain arte lortutako C¹⁴ bidezko datazioak hauek dira:

$2360 \pm 120 \text{ BP}$, $2320 \pm 90 \text{ BP}$, $2310 \pm 55 \text{ BP}$, $2170 \pm 80 \text{ BP}$ eta $1600 \pm 80 \text{ BP}$

2020KO EKINALDIKO LANAK

Esku-hartze arkeologikoa irailaren 1etik 18ra egin zen, batez ere, ekialde-mendebal norabideko erorketa-eremuan eta herrixkara sartzeko mendi-bidetik gertuen dagoen harresi-zatian aritu gara. Georadarrarekin ere lan egin genuen, ekialdeko terrazan babes-lerroa kokatzeko; zundaketa estratigrafiko bat ere egin genuen.



Landa-lanak aurreko ekinaldi batean

EKIALDE-MENDEBALDE NORABIDEKO ERORKETA-EREMUA

Batik bat 16T eta 16U koadroetan esku hartu dugu, baina baita 17T eta 17U koadroen hegoaldeko ertzean ere. Koadroak 5x5 m-koak dira, hau da, 25 m²-ko azalera dute.

Erorketa-eremu horrek hasieran neurri askotako harri ugari zituen; haietako batzuk hareharri gorrixkako lauzak ziren, eta batzuetan ebaki

linealen arrastoak zituzten. Eremu horretan, lerro ebaki finekin apaindutako estelen aurkikuntza nabarmendu behar da; horrez gain, beste mota batzuetako material arkeologiko asko (zeramikoa, metalikoa, litikoa eta beirazkoa) aurkitu genuen.

Geruzaz geruza, eremu horretako harriak desagertuz joan dira, aurrez marraztu eta argazkiak atera ondoren, eta ekinaldi honetan zehar, lan honen bukaerako zatia aipatutako koadroetan (16T eta 16U) egin genuelarik.

16U koadroan bi geruza jaitsi genituen eta 16T koadroan berriz lau. 17T eta 17U koadroen hegoaldeko zerrenda ez genuen amaitu, eta 2021eko ekinaldian zehar amaitzea espero dugu. 16 T eta 16U koadroen hegoaldeko alderdiaren zati handi batek kolore ilun gorrixka dauka, oinarriko geruzari dagokiona.



Harresiaren erorketaren eremua 16. bandan

HERRIXKARA SARTZEKO MENDI-BIDEAREN ONDOKO HARRESI-EREMUA

Herrixkara sartzeko bidearen ondoko eremuetan babes-lerroaren ibilbidea zehazteko asmoz eta, horrela, esparrura sartzeko ustezko puntu bat baieztatu ahal izateko, ekinaldi honetan bi jarduera egin ditugu: georadar bidezko azterketa bat, lurpean ezkutatu dagoen tokietan ibilbidea zehazteko (horri buruz arituko gara hurrengo atalean), eta bestetik, kanpoko eta barruko horma eta betelana argi eta garbi zehaztuta dauden indusketaren amaieratik (harresiaren 13W/14W koadroak), herrixkara ekialdetik sartzeko gaur egungo mendi-bideraino.

Zotala kendu ostean, lur horixkako maila lodi samar bat agertu zen, aztarnategi ia osoan bezala. Haren azpian neurri askotako harri ugari agertu zen, haietako bi lurrean sakonki finkatuta.

Ekinaldi honetan ezin izan zen eremu horretako esku-hartzea amaitu, baina harrietako batzuk lerrokatuta zeudela ikusi zen eta harresiak eremu horretan izango zuen ibilbidea argitu dezakete.

Bestalde, mendi-bidearen azpialdean (oraindik esku hartu ez dugun tokia) harresiko harriak zeudela ikusten zen; horregatik, beharbada, 2021eko ekinaldian mendi-bideko eremu horretan esku hartu ahal izango dugu.



Mendi-bidearen ondoko harresiaren eremua indusketa-lanetan



Berdin





Mendi-bidetik gertu dagoen harresiaren eremua agertzen hasi zeneko harri-mailaren bi alderdi

GEORADAR AZTERKETA

Herrixkaren ekialdeko terrazan harresiak egiten duen ibilbidea hainbat fasetan induskatua dago, ekialdetik aztarnategira igotzen den mendi-bidearen bi aldeetan (ipar eta hegoaldera). Hala ere, induskatutako bi ertzetako ibilbideak kota oso desberdinetan daude, eta egiturak alde horretan eten bat duela adieraz dezake, esparrurako ustezko sarrera batekin zerikusia izan dezakeena.

Horregatik, lursaila aztertzea erabaki zen, eremu horretan indusketa-lanak egin gabe babes-egituraren ibilbidea zehazteko.

Landa-lan horiek irailaren 15ean hasi ziren eta, gaur egun, amaitzeaz dago jasotako datuen interpretazioa.



Harresiaren ibilbidea zehazteko lanen bi ikuspegi

ZUNDAKETA ESTRATIGRAFIKOA

Induskatutako eremuaren alde askotan kolore gorri iluneko maila trinko bat agertzeak zoru naturalaren maila zela pentsarazi zigun, zonaldearen arabera gehiago edo gutxiago degradatua egongo dena.

16T koadroko harri-erorketa kendu eta maila hori agertu ondoren, 30 x 30 cm-ko kata bat egitea erabaki genuen; 35 cm-ko sakonera hartu zuen, estratu osoak lur trinko eta kolore uniforme bera zuen eta ez zen aztarna arkeologikorik agertu. Beste toki batzuetan helburu bera duten kata gehiago egiteko asmoa daukagu.



16T koadroan jalkin-mota dokumentatzeko egindako kata

MATERIALAK

Aztarnategiko hainbat tokitan egindako arkeologia-lanei esker zeramika aztarna asko berreskuratu ahal izan ditugu; baita industria litikoari dagozkion errekarriak (leuntzaileak, eraunskailuak eta abar) eta burdinaren metalurgiarekin lotutako elementuak ere (zepak eta ale

batzuk). Harresiaren handitutako aldeko erorketan harrizko fitxa bat ere aurkitu genuela nabarmendu behar da.

BESTE EKINTZA BATZUK ETA ONDAREAREN ZABALKUNDEA

Aurreko ekinaldietan bezala, aukeratutako material batzuen marrazkiak eta argazkiak egiten ari gara. Era berean, esku hartutako eremuen marrazkiak egiten ere ari gara. Lur- eta ikatz-laginak ere hartu genituen, aztertzeko eta, kasuren batean, C¹⁴ bidezko datazioak egiteko.

Covid 19ak sortutako egoera berezia dela eta, inguruko ikastola batzuek aztarnategira urtero egiten dituzten bisitak, Anoetako Udalak antolatuak, aldaketa batzuekin gauzatu ziren.

Taldeetako partaideen kopurua asko murriztu zen, eta ikasle eta irakasle guztiek musukoa jantzita zeramaten. Bestalde, ikasleen eta indusketa-taldeko kideen arteko kontakturik ez zen izan.

Zailtasun horiek gorabehera, eskatu duten eskoletako talde guztiek egin ahal izan zuten bisita eta jaso zuten informazioa. Nahiko ugaria izan ohi den helduen bisitaren deialdirik ez zen egin aurten.



Ikastolako talde txiki bat 2020ko arkeologia-lanak ikusten (musukoekin)